

Ebazpena: R11/2023

Espedientea: 26/2014

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita CDSL zergapekoaren egoitza fiskala zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 26/2014 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- CDSL 2006ko ekainaren 28an eratu zen, egoitza soziala Castro Urdialesen izanik (Kantabria), eta objektu soziala, higiezinen sustapena.

2012ko azaroaren 27an, CDSLk egoitza soziala eta fiskal Getxora (Bizkaia) aldatu zituen.

2.- Bazkideak MISL (helbidea: Getxo), SMA (helbidea: Erandio) eta KDSL (helbidea: Madril) dira.

Administratzaile solidarioak Getxon egoitza duen JCCB eta SMA dira.

3.- ZAEAk zergapekoak Kantabrian aitortutako egoitza fiskala egiaztatu zuen, eta 2013ko martxoaren 26ko txostena egin zuen; bertan ondorioztatu zuen helbidea ez zela existitzen, baina atari horretan bertan JCCB higiezin baten errentatzailea zela; zioenez, errentaria ez zen CDSL.

Kontabilitatea eta zerga-aitorpenak Bizkaian egiten dira, eta hara bidaltzen dira fakturak.

4.- Hori oinarri hartuta, ZAEAk 2013ko martxoaren 25ean bidali zion BFAri zergapekoaren egoitza fiskala Bizkaira aldatzeko proposamena, eraketa-datara arteko atzeraeraginarekin.

5.- BFAk 2014ko urtarrilaren 27ko txosten bat erantsi zion erantzunari; helbidealdaketa onartu zuen, baina atzeraeragina 2009ko apirilaren 1era mugatu.

Txostenean, ZAEAk 2013ko urriaren 9an hasitako 2010eko BEZaren akta aipatzen du BFAk. Akta hori ikuskapen-egiaztapen batengatik egin zen (2013ko martxoaren 25ean zergapekoa ikuskapen-planean sartu ondoren hasitakoa), zergapekoak aurkeztutako itzulketa-eskaera bat zela kausa, 2007tik jasandako kuotak barne hartzen zituena.

Akta horretan, ZAEAk zati batean onartu zuen itzulketa, 2007an, 2008an eta 2009ko lehen hiruhilekoan sortutako konpentsatu beharreko BEZaren saldoei zegokiena zehazki, eta hurrengo aldiak aztertu gabe utzi zituen, BFArekin izapidetzen ari den egoitza fiskala aldatzeko prozedura noiz ebatziko zain.

BFAk ere CDSLren egoitza fiskala 2009ko bigarren hiruhilekotik Bizkaian dagoela uste du.

6.- 2014ko maiatzaren 6ko idazki bidez, ZAEAk Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, egoitza-aldaketa eskatu zuen, eta BFAk baztertu egin zuen (atzeraeragin-mugari dagokionez), idatziz, 2014ko maiatzaren 12an, txostenean adierazitako arrazoiengatik.

7.- 2014ko ekainaren 10ean, ZAEAk 26/2014 gatazka aurkeztu zuen, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

8.- BFAk hasierako eta amaierako alegazio-idazkiak aurkeztu zituen, eta 2014ko urtarrilaren 27ko txostena berretsi zuen.

9.- ZAEAk ez du amaierako alegaziorik aurkeztu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Arbitraje Batzordean planteatutako gatazkak izapidetzeko prozedura

1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Araudiak (aurrerantzean, EIABA) Ekonomia Itunaren 66.Bi artikuluan aipatzen den prozedura garatzen du.

Egoitza-aldaketen kasuetan, prozedurak honako fase hauek izango ditu:

a.- Aurretiko fasea da, onarpen-baldintza gisa jarduten duena inhibizio-errekerimenduaren ordeztu, egoitza-aldaketaren proposamena egitea. Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua.

b.- Administrazio interesdunak 4 hilabete ditu proposamena baloratzeko, behar dituen egiaztapenak egiteko eta erantzuteko. Erantzunik ezak bere eskumenean berresten dela adieraziko du. EIABA, 13.1 art.

c.- Esanbidezko edo isilbidezko erantzunetik aurrera, proposamena egin duen administrazioak hilabeteko preklusio-epea izango du gatazka planteatzeko. EIABA, 13.2 art.

d.- Arbitraje Batzordeak hilabeteko epea emango dio administrazio demandatuari alegazioak egin ditzan.

e.- Ondoren, Arbitraje Batzordeak hilabeteko epea emango die alderdi guztiei, interesduna barne, espedientea ikusteko eta amaierako alegazioak egiteko.

f.- Azkenik, desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, Arbitraje Batzordeak ebatziko du.

Fase bakoitzean, dagokion izapidea egin behar duen administrazioak aztertu eta baloratu beharko du aurkakoaren jarrera. Desadostasunak bere horretan jarraitzen badu bakarrik egingo du aurrera prozedurak; izan ere, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zeina aplikagarria baita EIABAREN 8.

artikuluari xedatzen denari jarraikiz, prozedura amaitzea erabakitzen duen ebazpena emango da, prozedura gerora galtzeagatik, atzera egiteagatik edo uko egiteagatik.

Horrenbestez, EIABAn jasotako prozedura kontraesankorraren bidez, administrazioei segidako izapideen bidez aukera eman nahi zaie beste alderdiaren jarrera baloratzeko eta, horrela, gatazka amaitzeko. Jakina, desadostasunetan, kontrako alderdiaren jarrerari aurre egiteko aukera ere eskaintzen die, dagokion izapidean.

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

BFAk planteatutakoaren arabera, baiki, ZAEAk isilbidez berretsi du 2006-2009 aldiei gaineko eskumena duela, egiaztapen bat egin baitu, zergapekoaren gain ondorio preklusiboak eragin dituen, guztiz soberakoak EIABaren 15.2 artikuluan aurreikusitakoa bete nahi bada, eta ez delako koherentea gainerako aldiak ez egiaztatzea.

Beraz, ZAEAREN jarrera, hots, BFAREN jarrera ezeztatzen duen amaierako alegazioen idazkirik ez aurkeztea, egintza propioen teoriarekin koherente izanik, modu bakarrean interpretatu behar da: kontrako alderdiak emandako argudioak onartzen ditu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- CDSLren egoitza fiskala Bizkaian dagoela deklaratzera, 2009ko bigarren hiruhilekotik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CDSLri jakinaraztea.